

Ilargiaren efemerideak

- 2** 08:07an, goranzko nodora pasatuko da.
- 5** 06:29an, Ilgora.
20:55ean, konjuntzio geozentrikoan Marterekin 2° 04'-ra.
- 6** Gehienezko librazioa longitudean (l = 7,08).
- 7** 02:01ean, konjuntzio geozentrikoan Aldebaranekin 10° 06'-ra.
- 9** Gutxienezko librazioa latitudean (b = -6,67). Itxaso Australaren ertzak ikus daitezke hego-mendebaldeko mugan.
- 11** 17:07an, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin 3° 41'-ra.
- 13** 04:45ean, Ilbetea.
- 14** 00:37an, apogotik pasatuko da (Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena).
- 16** 14:37an, beheranzko nodora pasatuko da.
- 18** 05:00etan, konjuntzioan Spica izarrarekin 10 arku-minutura baino gutxiagora.
- 20** 05:13an, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin 4° 51'-ra.
- 21** 07:18an, Ilbehera.

- 22** Gutxienezko librazioa longitudean (l = -7,98). Ipar-mendebaldeko linboa behatzeko aukera. Gehienezko librazioa latitudean (b = 7,2).
- 25** 00:22an, konjuntzio geozentrikoan Artizarrekin 10° 01'-ra.
- 27** 20:10ean, perigeotik pasatuko da (Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena).
- 28** 00:31n, Ilberria. Perigeotik hain hurbil egonda, marea-koefizienteak oso handiak dira.

otsaila							2006						
A	A	A	O	O	L	I							
									1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12							
13	14	15	16	17	18	19							
20	21	22	23	24	25	26							
27	28												



Ekialdea

Beste efemeride batzuk

- 1** Asteazkena. Eguerdian 2.453.768. egun juliotarra hasiko da.
- 16** Eguzkia, itxuraz, Aquarius konstelazioan sartuko da (327,71°).
- 18** Astrologiaren arabera, Eguzkia Piscisen sartuko da.

Planetak

Ikusgaiak

Goizez, Artizarra.
Arratsaldez, Merkurio.
Gauetz, Marte, Saturno eta Jupiter.

Merkurio

Merkurio itzuliko da hilaren 10ean, eta orduan hasiko da 2006ko arratsaldeetan ikusi ahal izateko aldirik egokiena. Atmosferaren gardentasunaren arabera, Eguzkia sartu eta 30-50 minutu geroago agertuko da mendebalde hego-mendebalde horizontea baino gradu batzuk gorago. Haren magnitudea dela eta (-1,2), erraz ikus daiteke. 100 handipen soilik dituen tresna batekin, haren konkorra ere ikusiko da. Hilaren 18an, elongaziorik handienara iritsiko da, Eguzkitik ekialdera. Egun hauetan ekliptika zabalduko dela aipatzen da, ikusgai egongo da hilaren bukaerara arte, nahiz eta distira galduko duen azkar. 21 h eta 23 h bitarteko igoera zuzena.

-17° eta 0° bitarteko deklinazioa. Capricornusetik, Aquariusetik eta Piscisetik igaroko da. -1,3tik 0,3raino galduko du magnitudea. Horregatik, erraz ikusi ahal izango da.

Artizarra

Hego-ekialdeko horizontea baino 10° gorago egongo da hil osoan, Eguzkia atera baino ordu bate lehenago. Haren elongazioa handitza etengo du ekliptikaren inklinazioak. Hori dela eta, toki berean agertuko da. 19 h-ko igoera zuzena. -15°-tik -16°-ra bitarteko deklinazioa. Saggiariusen egongo da. -4,6ko magnitudea izango du. Puntu argitsu bat horizonte argiko goizetan.

Marte

Aries utziko du hilaren hasieran, eta ekliptikako ibilbidea hasiko du. 2007ko abenduaren 24an iritsiko da hurrengo posizioa, Geminira.

2006ko otsailaren 15eko 21:30eko

zerua



Behatzeko proposamena

Kasu honetan itsasora begiratzea proposatzen dugu, zerura beharrean. Eguzkiak eta Ilargiak Lurrari eragiten dioten erakarpen-indarrak sortzen ditu mareak, Lurra Eguzkiaren inguruan eta Ilargiak Lurraren inguruan egiten dituzten translazio-mugimenduek eragindako indar zentrifugoarekin batera. Otsailean Lurra Eguzkitik nahiko hurbil egongo da (Lurra Eguzkitik gertuago egoten da neguan udan baino). Hilaren 27an izango da perigeoa, Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena. Eta hilaren 28an Ilberria izango da; beraz, Eguzkia, Ilargia eta Lurra lerrokatuta egongo dira. Horregatik, egun horietan presio altuak baditugu (eguraldi ona), itsasbeherak oso behera iritsiko dira, eta gutxitan ikus daitezkeen kostaldeko eremuak ikusi ahal izango ditugu. Aldiz, presio baxuak baditugu (eguraldi txarra) itsasgorak ohi baino gorago iritsiko dira, eta uholdeak izan litezke.

Eguzkia sartu eta 8-9 ordura ezkutatu da. 3 h eta 4 h bitarteko igoera zuzena. $+20^\circ$ eta $+22^\circ$ bitarteko deklinazioa. Ariasetik Taurusera igaroko da. Magnitudea txikitu egingo zaio hilak aurrera egin ahala: 0,3tik 0,7ra.

Jupiter

Eguzkia sartu eta bost ordura agertuko da hilaren bukaeran, eta horizontetik 30° -ra egongo da egunsentiaren hasieran. $-2,2$ eko magnitudea izango du hilaren 28an, eta $38''$ -ko itxurazko diametroa. 60 mm-ko eta 60 eta 100 handipen bitarteko tresna batekin, Jupiterren tropikoak markatzen dituzten bi hodei-bandak ikus daitezke. 15 h-ko igoera zuzena. -16° -ko deklinazioa. Hil osoa Libran. Haren magnitudeak gora egingo du pixkanaka, $-2,0$ etik $-2,2$ ra. Hilaren 6an, Europa, Ganimes eta Kalisto ikusgai egongo dira planetatik ekialdera.

Hilaren 14an, Io eta Europa gurutzatu egingo dira planetaren ekialdeko linbotik gertu.

Hilaren 27an, Jupiterretik ekialdera, Io, Europa, Ganimes eta Kalisto beren ordena naturalean lerrokatuko dira.

Saturno

Oposizio gertatu berriaren ondoren, erretrogradazioak jarraituko du. Distira pixka bat galduko du. 0,7ko magnitudea hilaren 28an. $20''$ -ko itxurazko ekuatore-diametroa; eraztunena, $45''$. -20° -ko inklinazioa izango du gure ikuslerroarekiko. 8 h-ko igoera zuzena. $+19^\circ$ -ko deklinazioa. Cancerrren egongo da. Magnitudea pixka bat txikituko zaio: 0,5etik 0,7ra. Hilaren 6an, Titan elongaziorik handienean planetatik mendebaldera. Hilaren 14an, Titan elongaziorik handienean planetatik ekialdera.

Hilaren 22an, Titan elongaziorik handienean planetatik mendebaldera.

Urano

22 h-ko igoera zuzena izango du, eta -08° -ko deklinazioa. Aquariusen egongo da hil osoan, eta 5,9ko magnitudea izango du. Ezin izango da behatu hil honetan.

Neptuno

21 h-ko igoera zuzena. Deklinazioa: -15° . Capricornusen egongo da, eta 8ko magnitudea izango du. Ezin izango da behatu hil honetan.

Pluton

Ezin izango da behatu hil honetan. 17 h-ko igoera zuzena izango du. Deklinazioa: -16° . Serpensen egongo da, eta 14ko magnitudea izango du.

*Gehitu ordubete denbora ofiziala jakiteko.